# ALDUNDIKO ESKAERETAN ALDAKETA

Gaurtik aurrera (2025/06/20), Gizarte Zerbitzutako errekurtsoetan **guk ez dugu eskaerarik irekiko** kasu hauetan izan ezik:

- <u>Aparkatzeko txartelak</u> ---> Nahiz eta Aldundiari irizpena eskatu, ebazpena Udalarena da eta ondorioz, beti bezala egiten jarraituko dugu.

- <u>Telelaguntza</u> ---> Gurekin espedientea irekita badu eta 2 kasu hauetako bat bada:

  a) 75 urtetik gorako pertsona bada eta bakarrik bizi bada.

  b) 65 urtetik gorako pertsona bada eta Mendekotasuna aitortua badu (berdin du mendekotasunaren gradua eta berdin du bakarrik ala norbaitekin bizi den).

**<u>NOLA  bereiztuko dugu Aldundiko errekurtsoa den ala Udalekoa den</u>**

Aldundiko errekurtsoak honako itxura edukiko dute:




Udaleko eta Eusko Jaurlaritzeko errekurtsoak berriz, betiko itxura edukiko dute.



**PROZEDURA Aldundiko errekurtsoentzat**

Erabiltzailea aurkitu behar dugu eta “Eskaerak Ikusi” botoia sakatu ze errekurtsoari buruz hitz egiten ari garen identifikatzeko:




Programa berak irekiko digu dagokion Aldundiko edo Udaleko pantaila (hasieran erakutsitakoak). Kontuan izan behar dugu **Aldundiko eskaerek ez dutela “ekarri behar duen” zatia izango**, hau da, **ez dugu espedientes programan ezer atxikitu behar.**

Hemen 3 egoera eman daitezke:

**a) Erabiltzaileak, eskaera sinatua bakarrik aurkezten badu**: Erregistratu eta erregistro zenbakia adierazi.




Agiria atala hutsik utziko dugu. (Eskaera digitalki sinatuko dute hitzorduan, G.L.ek zuzenean binkulatuko dute eta GGZZetako administrariek erregistratuko dute).

**b) Erabiltzaileak, eskaerarekin batera errekurtso horri lotuta doan agiriak aurkezten baditu:** Dena erregistratu eta erregistro zenbakia adierazi. Erregistratzerako orduan, eskaera lerro batean eta gainontzeko dokumentuak beste lerro batean jarri.

**c) Erabiltzaileak, dokumentuak bakarrik aurkezten baditu (eskaerarik gabe):** Behin ze errekurtsoari dagokion identifikatuta, erregistratu agiri guztiak elkarrekin.

Ezin badugu identifikatu zein errekurtsoa den, erregistratzerako orduan "GDOK. Gizarte Zerbitzutako dokumentazioa" komodina erabiliko dugu (orain arte espedientes programan "gizarte zerbitzuak ez du eskatu" erabiltzen genuen bezala).

**OHARRAK:**

* Erregistroa telematikoki ere egin dezakete.

** PEAP eta PEVS errekurtsotan ezin da eskaerarik sortu, baina Gizarte Zerbitzutan lehenbailehen tramitatu ahal izateko, horrela jokatuko dugu:

- Ekartzen duten dokumentazioa erregistratu
- Gizarte Zerbitzuetara posta elektroniko bat bidali erregistro zenbakia jakinaraziz.

*** Aldundiko eskaerek ez dute diligentzia sortzeko aukerarik izango:

Orain arte, errekurtso baten harira dokumentu bat aurkezten bazuten, hori identifikatu eta diligentzia bat sortzen genuen (BVDrako txosten bat, laguntza teknikoetarako kontu korronte bat, PEAPen langile aldaketa bat, bestak beste). Orain, ordea, diligentziaren ordezkoa erregistroa izango da. Behin ze errekurtsoari dagokion identifikatuta, erregistratu agiri guztiak elkarrekin.

Ezin badugu zein errekurtsoa den identifikatu, erregistratzerako orduan "GDOK. Gizarte Zerbitzutako dokumentazioa" komodina erabiliko dugu (orain arte espedientes programan "gizarte zerbitzuak ez du eskatu" erabiltzen genuen bezala).

**<u>ESKAERA bat ireki behar badugu</u>**

Aparkatzeko txartelak edo Telelaguntzako kasu batzuk egiteko bakarrik erabili beharko genuke aukera hau. Printzipioz, beste kasu guztietan eskaera irekita egon beharko luke. Pausoak:

Erabiltzailea aurkitu eta "Eskaera egin" botoia sakatu:



Pantaila berri hau azalduko da:




Behin errekurtsoa aukeratuta, programa berak irekiko digu Aldundiko edo Udaleko pantaila (dokumentu hasieran erakutsitakoak).

a) **<u>UDALEKO eskaera bada</u>**: ez dago aldaketarik, beti bezala funtzionatuko dugu.




b) **<u>ALDUNDIKO eskaera bada:</u>** erregistratu eta pantaila berrian «azpikontzeptua» eta erregistro zenbakia jarri.



**OHARRAK:**

* Ahal dugun neurrian, “komodina” ez erabiltzen saiatuko gara, errekurtsoa identifikatzen saiatu behar dugu.

** **Gizarte Zerbitzutako eskaera guztiak** erregistratzerako orduan, eskaera lerro batean eta dokumentazioa beste lerro batean egingo dugu.

*** Jada irekita dauden errekurtso edo espediente asko daude. Hasieran esan bezala, aldaketa hau 2025/06/20tik aurrera izango da, beraz, denbora batean, errekurtso batzuetan, dokumentazioa lehen bezala atxikituz jarraitu beharko dugu. Denbora kontu bat izango da, beraz ¡¡KONTUZ!!